



VILLABONAKO SUBIJANA ETXEAREN ANTOLAKETARI ETA ERABILPENARI BURUZKO ARAUDIA

Villabona, 2009ko irailaren 8a

1. kap. DEFINIZIOA:

1.1. Villabonako Subijana Etxea udalarena da eta, hitzarmen baten bidez¹, Mintzola Fundazioari eman dio erabiltzeko eskubidea. Bere erabilpenaren eta antolamenduaren erantzukizuna dagokio Mintzola Fundazioari. Euskarazko ahozko tradizioaren behatoki dinamikoa izatea eta gizarteak dituen ahozko komunikazio premiei erantzun egokia ematea helburu nagusia izanik sortu da Mintzola Fundazioa². Era berean, herrian txertatzen saiatuko da Etxea, baita, hortaz, esparru horretan sor daitezkeen planteamenduei erantzuna ematen ere.

1.2. Mintzola Fundazioak, patronatuaren bitartez, Mintzolako zuzendaria eskuordetzen du Subijana Etxearen barnean izango diren jarduera, ikastaro eta ikuskizunen antolaketan, kudeaketan eta jarraipenean egon litekeen erantzukizunerako.

1.3. Mintzola Fundazioaren zuzendaria jardueren kudeaketa, abian jartze eta segimenduaren erantzule teknikoa izango da ondorio guztietarako eta, Subijana Etxeari dagokionez, hauek izango ditu eginkizunak, besteak beste:

- Lokalak behar den bezala mantentzea eta berauek erabiltzeko araudia betearaztea.
- Subijana Etxeko zerbitzu eta guneak eskatu eta erabiltzen ahal dituzten talde eta kolektiboak koordinatzea.
- Subijana Etxea erabiltzeko egiten diren proposamenak jaso, bideratu eta, hala behar denean, Patronatuko batzordeari helaraztea.

¹ Villabonako Subijana Etxea Mintzola Fundazioari lagatzea. Villabonako Udala-Mintzola Fundazioa. 2009ko martxoaren 26a.

² Mintzola Fundazioaren estatutuak. Donostia, 2008ko abenduaren 12a.

1.4. Villabonako Subijana Etxean, Mintzola patronatuko zuzendariak ez ezik, Euskal Herriko Bertsozale Elkartek lan egiten du, Mintzola Fundazioak horretarako eskumenak emanik. Etxearen kudeaketa zein erabilera, beraz, Mintzola Fundazioaren eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen esku dago³.

2. kap. ORDUTEGIA:

2.1. Subijana Etxea honako ordu hauetan egongo da publikoarentzat zabalik:

◆ Irailetik ekainera:

- ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 08:30etatik 13:00etara; 15:00etatik 18:00etara.

◆ Uztailen:

- ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 08:00etatik 15:00etara.

2.2. Mintzolaren patronatuak, zentroko zuzendariaren bitartez, antola daitezkeen ekitaldien beharren arabera, ordutegia aldatu ahal izango du horretarako beharrezko izango diren arduradunak antolatzaileei eskatuz eta izendatuz.

3. kap. EKITALDIAK:

3.1. Subijana Etxearen Areto Nagusian, Liburutegiaren aretoan eta Bilerak Gelan gauzatuko diren ekitaldiak edo bilerak ahozkoatasunaren alorrekoak izango dira, eta Mintzola Fundazioaren programazioaren barruan dauden haiek izango dute lehentasuna.

3.2. Beste ekitaldi motak ere gauzatu ahal izango dira eta, horretarako, zentroko zuzendariaren hasierako onespina izan beharko dute.

3.3. Alderdi edo talde politikoen jarduera Subijana Etxean programatu daitekeen jardueratik kanpo gelditzen da.

³ *Subijana Etxearen Espazio lagapena gauzatzeko hitzarmena, Mintzola Fundazioak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartek egina. Villabona, 2009ko otsailaren 9a.*

4. kap. ERABILTZAILAK:

4.1. Subijana Etxeko zerbitzuen erabiltzailetzat hartuko da parte hartzaile gisa bertaratzen den ikus-entzule, irakurle, ikertzaile edo ikastaroetako partaide oro.

4.2. Hona hemen erabiltzaileen betebeharrak:

- Erabakitako ordutegiak errespetatzea.
- Bertan diren altzariak errespetatu eta egoki erabiltzea.
- Subijana Etxeko azpiegitura egoki erabiltzea.
- Etxearen ordena eta garbitasuna errespetatzea.
- Etxearen arduradunak/ek ematen ditu(zt)en aginduak betetzea.

4.3. Etxea behar ez bezala erabiltzea eta 4.2. artikuluan xedaturikoa bete ez izatea zigortzeko arrazoi izan daitezke.

4.4. Zigorrek Mintzola Patronatuko zuzendaritza batzordeak ezarriko ditu, zentroko zuzendariak igorriko duen nahitaezko txostenaren bidez. Aipatu batzordeak hutsegitea neurtuko du eta horri dagokion zigorra ezarriko.

4.5. Ez larrizat jotako beste edozein hutsegite zentroko zuzendariak berak ebatziko du, Mintzola Patronatuaren lehendakaria jakinaren gainean egonik.

5. kap. GUNE MOTAK:

5.1. Subijana Etxean hainbat gune bereiz daiteke, ezaugarrien arabera, maila hauetan sailkaturik:

0. SOLAIRUA

- Harrera gunea.
- Bilera gela.
- Areto Nagusia.

1. SOLAIRUA

- Xenpelar Dokumentazio Zentroaren biltegia.

2. SOLAIRUA

- Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eta Mintzola Fundazioaren lan-guneak.

3. SOLAIRUA

- Liburutegia, ikus-entzunezko- eta ikerketa-gunea.

5.2. Ondoren zehazten dira bertako langileez gaindi baliatzeko diren guneen funtzioak:

Bilera Gela: Subijana Etxean duten zerbitzu guztietako bilerak egiteko lekua izatea du helburu. Hauek dira zerbitzuak:

- Patronatuko batzordeak.
- Egoitza Subijana Etxean duten erakundeen eta taldeen bilerak.
- Zentroko langileen bilerak.
- Mintzolanaren egitasmotik sortu diren jarduerak gauzatzeko antolatu diren batzordeen bilerak edo ekintzak.

Areto Nagusia: batik bat Mintzolako egitaraua (antzerkia, hitzaldiak, mintegiak, jardunaldiak, erakusketak, proiektzioak...) gauzatzeko erabiliko da. 3. kapituluan zehaztua hartuko da kontuan Areto Nagusiaren lagapenerako.

Liburutegia, ikus-entzunezko- eta ikerketa-gunea: ahozko generoen dokumentazioa biltzea, antolatzea eta interesatuarentzat eskuragarri jartzea du helburu. Honakoetarako erabil daiteke:

- Irakurketa, ikaskuntza eta ikerketarako.
- Ikus-entzunezkoak baliatu eta kontsultatzeko.
- Ikus-entzunezkoak editatzeko: elkarrizketak, kantuak, bertso dokumentuak, erreportajeak...
- Erakusketak egiteko.
- Ekitaldi berezietarako.

6. kap. GUNE-MOTEN KUDEAKETA

6.1. Mintzola Fundazioaren eta Bertsozale Elkartearen arteko hitzarmena⁴ aintzat hartuz, Mintzola Fundazioak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartek beren jarduerak garatu ahal izango dute, bi aldeek onartutako etxearen **erabilera eta antolamendu araudi bat** jarraituz.

6.2. EHBEak, Mintzola Fundazioaren zuzendariaren onespenerekin, espreski baliatuko dituen guneak ondorengoak dira:

- Harrera.
- Xenpelar Dokumentazio Zentroaren biltegia.
- Liburutegia, ikus-entzunezko- eta ikerketa-gunea.
- Langile-gunea.

6.3. Mintzola Fundazioaren zuzendariaren ardura izango da Areto Nagusia, Bilera Gela zein Liburutegia zerbitzu-guneak baliatzeko prozedurak zehaztea eta horiek gauzatzen diren egiaztatzea.

6.4. Halaber, Mintzola Fundazioaren zuzendariaren ardura izango da gainerako guneen kudeaketa-arauak zehaztea eta betetzen diren egiaztatzea.

6.5. Subijana Etxearen guneak ez dira erabiliko biltegi funtzioa betetzeko.

7. kap. ERABILPENA: uzteko eta erabiltzeko irizpideak

7.1. Subijana Etxeko programazioa eta, behar denean, guneen erabilera zentroko zuzendariaren erantzukizuna izango da.

7.2. Subijana Etxeko gune hauek utziko dira:

- Bilera gela.
- Areto Nagusia.

⁴ *Subijana Etxearen espazio lagapena gauzatzeko hitzarmena, Mintzola Fundazioak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartek egina. Villabona, 2009ko otsailaren 9a.*

- Liburutegia, ikus-entzunezko- eta ikerketa-gunea⁵.

7.3. Guneak esleitzeko unean, Mintzolaren programaren barreneko ekintzek izango dute lehentasuna. Era berean, Villabonan eta eskualdean kokatu eta eraturiko kultur talde eta kolektiboen eskaerak kontuan hartuko dira. Halaber, ahozko jarduerak beste motatako jardueren aurrean lehentasuna izango dute.

7.4. Subijana Etxeko zenbait gune –Areto Nagusia, batez ere- erabiltzeko, Mintzola Patronatuak berak eta kultur eta arte alorretako pertsonak edo taldeek, egoerak aginduta, lankidetzaz hitzarmenak egin ahal izango dituzte.

7.5. Guneak uzteko, baldintza hauek ezarri dira:

- Mintzola Fundazioaren programan txertagarri izan litekeen proposamena izango da. (ikus. 3. kap.).
- Egingo diren ekitaldiak zentroaren ordutegietara egokitu beharko dira, eta ezin izango dute zentroen programazioa nahastu eta eragotzi, ezta bertako langileen eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Ordutegi honetatik kanpo gelditzen den guztia Mintzola Fundazioaren zuzendariak aztertuko du, bertako langileria eta programazioa kontuan hartuta.
- Mintzola Fundazioaren bulegoetan eskaera idatziz egin beharko da, gutxienez, 15 egun lehenago. Eskaeran zehaztuko dira: eskatzailearen datuak, jardueraren nondik norakoa, iraupena, ordutegia eta parte-hartzaile kopurua, batik bat. Halaber, materialaren lagapena (aulkiak, mahaiak...) edo ekipamendua zehaztuko da (bideoa, arbela...). [1. eranskina: eskaera-orria].
- Jarduera edo ekitaldia egin ondoren, 15 eguneko epean jarduera-memoria egin eta Mintzola Fundazioari helaraziko zaio. Beharrezko ikusten denean, bi hilabeteren bururako luzatuko da memoria aurkezteko epea. [2. eranskina: jarduera-memoria].
- Araudi honetako 4.2. artikuluan xedaturiko baldintzak errespetatu behar dira.

⁵ Batez ere, ikertzaileentzat eta ekitaldi oso zehatzetarako.

- Erabiltzeagatik, Patronatuaren beraren irizpidez eta hark urtero onartua izanik, kanon bat kobratu ahal izango da urteko prezio publikoen arabera eta Fundazioaren aurrekontuak aintzakotzat hartuz.
 - Areto Nagusia
 - Egun osoa: 180,00 €
 - Egun erdia: 90,00 €
 - Liburutegiko aretoa
 - Egun osoa: 180,00 €
 - Egun erdia: 90,00 €
 - Bilera Gela:
 - Egun osoa: 90,00 €
 - Egun erdia: 45,00 €

- Ekitaldia edo jarduera gauzatuko duten pertsonen sarrerak edo irteerak kontrolatu eta etxearen zaintza ziurtatzeko, zinpeko guardia baten presentzia beharrezko dela irizten bada, horren gastuak eskatzailearen kontura joango dira, baita kontratatu beharreko aparteko langileriarena ere.

7.6. Guneak uzteak ez du esan nahi Subijana Etxeko langileak ekitaldia antolatzen eta laguntzen lanean jarriko direnik, ezta bere ekipamendu teknikoaren edo materialaren jabe egingo direnik ere. Ekipamenduak direla-eta behar bereziak badaude, eskaeran egingo da horien azalpena, eta Zuzendariaren ardura izango da horiek erabiltzeko baimenaren erantzuna ematea. Beharrezko ikusten denetan, erabilitako baliabideen kostua ordaindu beharko du erabiltzaileak (argindar berezia eskatzen denean, epe luzerako tresna informatikoak edo ikus-entzunezko baliabideak eskatzen direnean, adibidez).

7.7. Aretoko baliabideak (argiak, grabagailua, ordenagailua, etab.) ezingo dira erabili, ezta Subijana Etxeko beste edozein zerbitzu ere, aurrez horren berri eman eta baimena jaso gabe.

7.8. Areto bat erabiltzeko baimena izateak ez du esan nahi eskatzaileak barruan leku pribaturik izan dezakeenik ez eta zentroa bere elkartearen egoitzatzat har dezakeenik ere.

7.9. Erabilitako guneen garbiketa eskatzailearen ardurapean egongo da, eta hartu bezala utziko ditu erabilitako material eta baliabide guztiak.

7.10. Mintzola Fundazioak honako eskubide hauek gordeko ditu beretzat, erabiltzailearentzat betebeharrak izango direnak:

- Areto edo guneen erabilera dela-eta egindako publizitatea kontrolatzea.
- Mintzola Fundazioa laguntzaile moduan agertzea, baimendutako erabilpenak sortuko duen publizitate guztian.
- Beharrezko ikusten denetan, hedabideen zabalkundea eskatzea.
- Aretoan gauzaturiko jarduera eta ekitaldiak Mintzola Fundazioak leuzkakeen komunikazio egitasmo eta baliabideen bidez hedatzea.
- Ekitaldietan diru-sarrerak kobratzeko baimena ematea, eta hala denetan, baldintzen arabera ordainketa-canona ezartzea.
- Egiten den eskakizun motaren arabera, beharrezko ikusten den ordainketa-canona ezartzea Mintzola Fundazioaren aurrekontua aintzat hartuz.
- Arau hauek betetzen ez badira edo instalazioa Mintzolak behar badu, baimena deuseztatzea.

8. kap. PREBENTZIOA ETA BABESA

8.1. Prebentzio neurrien arauak aintzat hartuko ditu baimen eskatzaileak.

9. kap. ARAUTEGIAREN INTERPRETAZIOA ETA ALDATZEKO ESKUMENAK

9.1. Mintzola Fundazioaren Patronatuak eta bere zuzendariak eskumen osoa dute araudi hau zuzen interpretatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak izan daitezkeen agindu eta instrukzioak ematean.

9.2. Araudi honetako zeinahi artikulua aldatzeko Patronatuko Batzarra bildu eta bozkatu egin beharko da.

Villabonan, 2009ko irailaren 8an



Mintzola guneen erabilera

argibideak

- *Eskaera-orria*, gutxienez, aurreikusitako erabilera data baino 15 egun lehenago jasoko du Mintzola Fundazioak.
- *Eskaera-orriko* datu guztiak bete behar dira. Beti jarriko dira arduradun baten izena eta kontaktua.
- Ekitaldiaren ondoren, 15 eguneko epean *jarduera-memoria* bete eta Mintzola Fundazioari helaraziko zaio. (2 hilabetera luza daiteke epea, horren eskaera egin eta justifikatzen bada).
- Eskatzailearen ardura izango da erabilitako gunea zaintzea eta Subijana Etxeko lan dinamika ez urratzeko baldintzak bermatzea. Aretoa edo gunea erabili ondoren, hartu bezala utziko da, bertakoa ez den guztia jasoko da, eta materialik ez da gordeko, aldeztu aurretik, horretarako eskakizunik egin ez bada.
- Eskaera-orrian jarritako arduraduna izango da Mintzola Fundazioaren aurrean erantzulea.
- Aretoa edo gunea erabiltzen denean, Mintzola Fundazioak ez ditu bere gain hartuko bertan gerta daitezkeen lapurreta edo kalteak.
- Aretoa edo gunea erabiltzean kalterik sortzen bada, Mintzola Fundazioaren zuzendaritzak aztertuko du, eta beharra balitz Patronatuak erabakiko luke zeini dagokion kalte ordainen erantzukizuna.
- Mintzola Fundazioak guneak lehentasunez erabiltzeko eskubidea du, eta beharrezko duenetan aurrez jakinaraziko dio idatziz erabiltzaileari.
- *Villabonako Subijana Etxearen antolaketari eta erabilpenari buruzko araudia* aintzat hartuko da eskatzaileari eskumenak eman eta erantzukizunak eskatzeko.



Mintzolaren areto edo guneak eskaera-orria

ESKATZAILEAREN DATUAK

ESKATZAILEA:

NAN zk.:

ERAKUNDEA:

IFZ zk.:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

POSTA ELEKTRONIKOA:

ESKAKIZUNAREN EDUKIAK

- Eskatzen den gunea:
- Jardueraren helburua eta eginkizuna:
- Data eta ordutegia:
- Jardueraren programa (erantsi eskakizunari) edo landuko diren gaiak
- Partaideen deskribapena:
 - antolatzaileak:
 - emaileak:
 - partaide kopuru aurreikusia:
 - partaideen lurralde-jatorria:
- Arduradunaren izen-abizenak:
- Arduradunaren kontaktuak (telefono zk. eta e-posta):

BALIABIDEAK (bai/ez adierazi)

- | | | |
|--------------------------|-----------|------------------------|
| - Arbela: | - Datuak: | - Mikrofonoak (kopurua |
| - Proiektorea: | - Ahotsa: | zehaztu): |
| - Pantaila: | - Argiak: | - Ordenagailua: |
| - Itzulpena (erakundeak) | | |



Mintzolaren areto edo guneak

Eskaera-orria

BESTELAKO OHARRAK

Data eta eskatzailearen sinadura:

Bidali helbide honetara:
Mintzola Fundazioa
Subijana Etxea. Kale Nagusia 70
VILLABONA. 20150

943 69 38 70
mintzola@mintzola.com



Mintzolaren areto edo guneak jarduera-memoria

ARDURADUNAREN EDO ERABILTZAILEREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK:

NAN zk.:

ERAKUNDEA:

IFZ zk.:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

POSTA ELEKTRONIKOA:

JARDUERAREN EDUKIAK

- Erabilitako gunea:
- Jardueraren helburua eta eginkizuna:
- Data eta ordutegia:
- Jardueraren programa edo landu diren gaiak (egoki ikusten bada, ziurtagiriak)
- Partaideen deskribapena:
 - antolatzaileak:
 - emaileak:
 - partaide kopurua:
 - partaideen lurralde-jatorria:
 - partaide kopurua: emazkumezkoak / gizonezkoak
- Ebaluazioa edo balorazioa:
- Asebetetze inkestaren emaitzak:

ERABILITAKO MATERIALA



Mintzolaren areto edo guneak jarduera-memoria

AURRERA BEGIRA, HOBEKUNTZAK ETA PROPOSAMENAK

BESTELAKO OHARRAK

Data eta arduradunaren sinadura:

Bidali helbide honetara:
Mintzola Fundazioa
Subijana Etxea. Kale Nagusia 70
VILLABONA. 20150

943 69 38 70
mintzola@mintzola.com



Mintzolaren areto edo guneak

hitzarmenak